

## **LEGEZKO ABISUA**

### **JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALA**

Atari hau osorik jabetza intelektual eta industrialari buruzko Espainiako eta nazioarteko legeek babesten dute. Espresuki debekatuta dago atari honen kopia osoa edo partziala egitea, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatearen berariazko baimen idatzirik izan ezean. Atari hau edo honen edukiak indarreko araudian ezarritakoaren kontra erabiltzea legez zigortzen ahalko da.

### **DATU PERTSONALEN BABESA**

1. Ez da nahitaezkoa datu pertsonalak ematea. Bere datu pertsonalak ematen dituen erabiltzailea izanen da datu horien egiazkotasunaren eta zuzentasunaren erantzule bakarra. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik.
2. Erabiltzaileak emandako datuak gure datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartu eta Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera tratatuko dira. Datuak ematean, erabiltzaileak horien tratamendu automatizaturako baimena ematen dio Udalari, kasu bakoitzean atarian adierazitako helburuekin. Erabiltzaileak datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu edo horien kontra egiteko eskubidea izanen du edozein unetan.
3. Izena eman duen unean erabiltzaileak bere borondatez emandako datuak baino ez dira gordeko.

### **ERANTZUKIZUN MUGATUA**

1. Atari honetan jasotzen da Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak fidagarritzat jotzen dituen iturrietatik fede onez bildutako informazioa. Hala ere, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak ez du atariaren edo haren edukien gaineko berme espliziturik zein impliziturik ematen. Udalak ez du bermatzen atariko orrien funtzionamendua, ezta haren edukiak uneoro osoak, zehatzak edo fidagarriak izanen direla.
2. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak ez du bere gain hartuko ataria erabiltzeak eragindako kalte edo galera zuzenen zein zeharkakoen gaineko inolako erantzukizunik; sistema informatikoetan sortutakoak, birus informatikoak eta atariko informazioan oinarrituz hartutako edozein erabakiren ondorioz eragindako kalteak barne. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak informazioaren baieztatze idatzia eskatzea gomendatzen du, hala behar izanez gero.

### **ERABILERA MUGATUA**

Atari honetako informazioa erabiltzerakoan, kasuan kasuko arauak beteko dira. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak ez du bere gain hartuko atariko edukien erabilera ezegokiaren inguruko inolako erantzukizunik, ezta aipatutako erabilerak eragiten ahal dituen ondorioen ingurukorik ere.

## **BESTELAKO BALDINTZAK**

1. "Atari" terminoak, erabilera baldintza hauen ondorioetarako, "webgune" esan nahi du.
2. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea beretzat gordetzen du edozein unetan atari honetako edukiak eta bertan Sartzeko Baldintza Orokorak aldatzeko eskubidea, aldez aurretik jakinarazi gabe.
3. Erabilera Baldintza Orokor hauek eta erabiltzailearen eta bitartekotzaren artean ezartzen diren harreman guztiak indarreko lege espainiarrak arautuko ditu.
4. Ataria erabiltzeak berekin dakar aurreko Erabilera Baldintza Orokorak onartzea.